

## Elur protokoloa aktibatuta

2016/02/15

Gaur arratsalderako eta biharko Euskalmetek Euskal Autonomi Erkidegoan elur-kota 400 metrora edo gutxiagora jaitea espero duenez, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK abian jarri du elurteetan jarduteko protokoloa.

Hala ere, aurrez-aurreko eskolak bertan behera uzteko irizpideak betetzen ez direnez, gaur, otsailak 15, astelehena, arratsaldeko eskolak normaltasunez eskainiko dira.

18:00etan emango da jakitera webgune honetan eta @MUnibertsitatea twitter-kontuan biharko, asteartea otsailak 16, eskolei buruzko erabakia.

